

## Puerto de Orduña – Villalba de Losa



### **KOKAPENA**

Xendazaletasunaren denboraldiari hasiera emateko, irteera erlajatua eta oso polita aukeratu dugu. Santiago mendiaren burgoseko partea ezagutuko dugu, Salvada mendatearen ekialdean kokatuta dagoen bailara hau ezezaguna izaten baita arabtarrantzat.

Aintzinako artzaindegiaren bideetaz baliatuz, portuaren goiko partetik herrietara jeitsiko gara. Boveda herriraino iristen ziren bide guzti hoiek, ganadua burgoseko Merindade osotik mugitzeo erabiltzen ziren.

### **DESKRIBAPENA**

Orduñako portuaren goiko partetik, beheranzko joerarekin eta ekialdeko norabidean aurrera egingo dugu. Denboraldiaren lehenengo irteera izanik, erritmo lasaian, ikuspegietaz eta taldeaz gozatuz joango gara.

Bidezkak, pistekin eta errepide zati batzuekin tartekatuko ditugu, beti ere beheranzko joerarekin.

Irteera honen desnibel ia osoa negatiboa izango da. Portua 900 metrotan izango dugu eta herriak aldiz, 600 metrotan.

Aimalieei dagokionez, bertako faunan nagusi, putreak izango ditugu eta etxeke abereak, behiak eta ardiak gehien bat.

## IBILBIDEA

**KM 0** Orduñako portuaren goiko partetik beherantz doan eta ekialdera doazten bideak hartuko ditugu. Hasierako zatian, malda txiki bat izanik.

**KM 3** Puntu hontatik aurrera behera egingo dugu une oro. Bide zidor ezberdinak topatzen joango gara. Guztiak bailararen beheko herrietara doaztenak, gurea ekiadara doan bakarra da.

**KM 6** Mijala herriaren ondotik pasatuko gara, norabide aldaketa baten ostean hegoaldera joko dugu ibilbidea amaitzen den arte.

**KM 9,7** Villalba de Losa herrira helduko gara. Bertan, arropa aldatzeko eta erlajatzeko tarteak izango dugu, baita, Estadiora eramango gaituen autobusa itxopen ere.

